



# ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO  
Tfona.: 943-313 030 e-posta: [infogeldo@euskalerrria.org](mailto:infogeldo@euskalerrria.org)

## GAIAK:

Emakumeen afaria

Igeldo 89. udalerrria: jaialdia, atxikimenduak, abokatuari elkarrizketa...

Herrian ze berri?  
Lezkarri Abesbatza, Kixmi,  
Jardunaldi  
Independentistak...

Diputazioaren  
ezetzari...



Ubaderriko jaia datorren asteburuan!!!

## Kaixo herrikide!!!

Iritsi gara berriro ere zure etxera. Udaberri usainean oraingoan, apiril lehorra atzean utzita. Non gelditu ote dira Apirileko euriak? Noiz etorriko ote dira? Beno, egia esan hori ez da gure lana, Pello Zabalak hobeto jakingo du horren berri. Hala ere, naturako parte garen heinean halako gaiak zer pentsatua sortzea normala da, eta gainera hizketa gai bikaina izan ohi da eguraldia elkarrizketari hasiera emateko. (Horren berri euskaldunok ondotxo dakigu).

Beraz, sarreratxoa eginda, aurreko aletik hona herrian izandako gertakariak eta berriak kontatzea da gure helburua. Martxoa hilabete mugitu xamarra izan dela ezin uka, asteburuetan planik gabe zegoenarentzat ez aspertzeko modukoa. Hasteko, lehendabiziko asteburuan Emakume afaria izan zen Buena Vista jatetxean, Martxoak 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Urtetik urtera geroz eta emakume gehiago dira ospakizun honetara hurbiltzen direnak, aurten 63 emakume bildu ziren eta giro ederrean afaldu zuten, kontu kontari, kantari eta trikitixa doinuekin dantzari ere.

Urtero bezala, baserriko produktuez osatutako otarrak ere protagonista izan ziren, aurten bi izan baitziren. Antolatzaile diren emakume baserriarrek, euren etxeetako eta inguruko baserrietako produktuekin osatzen dute otarra. Otar hau, afarira inguratzen diren guztien artean zozketatzen da errifa batzuen bidez eta tokatzen



Urtero bezala, afalostean kantuan aritu ziren guztiak batera.



Aurten bi otar zozketatu dira eta Amaia Sansineneak eta Maria Luisa Bengoetxeak eraman zituzten. Sorpresatxo eta guzti gainera!

zaionak aste baterako jakia eramaten du etxera. Aurtengoan, Amaia Sansinenea eta Maria Luisa Bengoetxea izan ziren zortedunak. Gainera sorpresatxoa ere bazuen bakoitzak otarrean,

lata handi baten barnean, batek platanok eta besteak Igeldoko txokolatzeko arroak. Zorionak bioi eta honezkeroko jakiak ederki ezkutatuak izango dituzuen arren ON EGIN!!! ■



Urtetik urtera geroz eta emakume gehiago dira ospakizun honetara hurbiltzen direnak; aurten, 63 emakume bildu dira.

Igeldoarrok udalerria izateko dugun eskubidea errespetatu dezatela eskatuz, pertsona, talde, Udal... ezberdinen babesa jaso dugu azken hilabeteetan. Hori horrela, babes hori eskertzeko, jaialdia antolatu zen maiatzaren 2an. Gonbidatuek argi utzi zuten Igeldo bezalako herri txikiak duten aberastasuna eta herriaren borondatea errespetatu beharra.

## “Igeldo udalerrri eske?”

Maiatzaren 2an sekulako jaialdia izan zen Igeldon. Azken hilabeteetan, pertsona, talde, Udal... ezberdinen babesa jaso dugu igeldoarrok udalerrria izateko dugun eskubidea errespetatu dezatela eskatuz, eta babes hori eskertzeko antolatu zen jaialdia. Egund osoko jaia izan bazen ere, ekitaldi nagusia arratsaldean izan zen, frontoian. Bertan izan ziren Porrotx pailazoa, Txan Magoa, Orioko dantzariak, Unai Gaztelumendi eta Beñat Iguaran bertso-lariak, eta hasiera-hasierako Triki ta ke taldeko kideak: Iker eta Gurutze Dorronsoro. *Herri minez* kanta jo zuten Xabi San Sebastianen laguntzarekin. Argi geratu zen ez Diputazioaren erantzunak ezta eguraldi txarrak ere, ez dutela zapuzten herri honek borrokatzeko eta aurrera egiteko duen gogoia.



Igeldo udalerrri izatearen inguruan hitz eginez, Porrotxek herri txikiaren aberastasuna azpimarratu zuen. Txan Magoak egindako adierazpenak ere oso adierazga-

rriak izan ziren: “Igeldo udalerrri eske? Antiguatarrok argi izan dugu beti Igeldo herri bat dela”. Frontoia lepo bete zen, inguruko auzo eta herrietatik ere hurbildu



baitzen jendea. Ekitaldia amaitzeko, Igeldori babesa eman diotenen oparitutako materiala zozketatu zen, hala nola, Realeko kamiseta, Su ta gar taldearen CDa, baketak eta puak, Imanol igeldoarrak egingako egurrezko koilare eta figura... Guztira 14 sari banatu ziren.

### Egun osoan giro ederra

Jaialdia arratsaldean zentratu bazen ere, egun osoan zehar izan zen herrian mugimendua. Eguerdian



hasita, herri kirolak izan ziren herriko gazteen eskutik eta Aitor Mendiluze eta Jokin Labaien bertolariek giro eta saltsa ederra jarri zuten bakoitza talde baten alde jarrita. Proben artean, berrikuntza moduan, karga altxaketa egin zen eta oso ikuskizun polita eman zuten parte hartu zuten herritarrek. Minutu batean zenek gehiago altxa aritu ziren eta Mikel Urangak egin zituen jasoaldi gehien: 8.

Herri kirolen ondoren, bazkaria egin zen Din-din elkartean. 97 lagun bildu ziren mahaiaren bueltan. Ederki jan eta edateko aukera izan zen giro ezinhobean.

### Pintxo eta taloak egunean zehar

Eguerditik hasita, Itsas Aurren taberna irekita egon zen eta bertan aukera izan zen pintxoak eta bokatak jateko. Eta jendeak jakin zuen aukera aprobetxatzen. Mugimen-

dua izan zen ireki zenetik iluntzera arte; barra itxi eta jendea bidaltzen hasi ziren arte! Hori bai, aurretik talo bat janda, oraingoan ere herriko talogileek ez baitzuten hutsik egin.



### Ezetzaren aurrean, aurrera!

Maiatzaren 2ko jaialdia, azken hilabeteetan Itsas Aurrek antolatutako ekintzarik potoloena izan da. Baina ez bakarra. Diputazioa erabakia hartzekoa zela jakin zenetik makina bat ekintza egin dira igeldoarren borondatea errespetatu dezatela eskatuz. Ekintzak izan dira herrian eta baita herritik kanpo ere. Otsailaren 21ean Herri Batzarra egin zen momentuko egoera azaltzeko eta ekintzen informazioa emateko, eta handik bi egunetara, prentsaurrekoa eman zen Diputazioaren aurrean.

Segidan, otsailaren 27an, Markel Olano diputatuak deitutako bandera espagnolaren aurkako kontzentrazioan parte hartu zen beraien hipokresia agerian utzita. Hori bukatzean, igeldoarrok deitutako kontzentrazioa egin zen. Eta eguna ondo baino hobeto bukatzeko, barrikotea ziklogenesi eta guzti! Martxoan ere ez gara etxean geratu: 6an kalejira Antiguatik Diputazioa eta bertan kontzentrazioa; 14an herri martxa eta ondoren hamai-ketakoa argazki erakusketarekin; 16an kontzentrazioa Diputazioaren aurrean; 18an mus azkarra herriaren alde; eta maiatzaren 2an jaialdia.

Eta orain, zer? Diputazioak ezetza eman arren, erabaki horrekin ez da ezer bukatu. Eskubidea daukagu udalerrizateko eta lehen ere behartu gaituzten bezala, epaitegietara jo dugu, errekurtsioa jarri dugu EAEko Auzitegi Gorenean. ■

# 200 atxikimendu inguru Igeldo udalerrri izatearen alde

Igeldo udalerrri izatearen alde, arlo ezberdinetako pertsonaia ezagun eta talde ezberdinek beren babesa eman dute azken hilabeteetan. Baita zenbait Udalek ere. Atxikimenduak egunetik egunera gehituz doaz.

Igeldoren desanexio eskaeraren inguruan, Diputazioa erabakia hartzeaz zela, Itsas Aurre elkarteak manifestu bat idatzi zuen Igeldo Udalerrri izeneko, pertsonaia eta talde ezberdinen babesa lortzeko asmoz.

Apirilean, jada, manifestu horrekin bat egin zutenak 160tik gora ziren. Atxikimendua eman dutenen artean daude futbol jokariak, peletariak, arraunlariak, bertsolariak, idazleak, aktoreak, musika taldeak, bakarlariak, zinegileak... Zenbait Udalek ere beren babesa eman dute idatzia Plenotik pasa ondoren. Eta Plenotik pasa gabe, pertsonalki atxikimendua eman duten zinegotzi eta alkateak ere badira.

Atxikimenduarekin babesten dute herri txikiak bizirik irauteko duten eskubidea, igendoarren gehiengoak adierazitako borondatearekin bat egiten dute eta borondate horri bide ematearen aldekoak direla diote.

Atxikimenduen ekimenak aurrrera jarraitzen du eta egunetik egunera handituz doa zerranda. ■

ANA	ABAJO	IDAZLE, ANTZERKIGILE...	UNAI	ITURRIAGA	BERTSOLARITZA
EDORTA	AGIRRE	ZURIFTA	ICOR	JAIURECI	Frodeko jokalaria eta
EÑAUT	AGIRRE	BERTSOLARITZA	ANTON	KAZABON	IDAZLE, ANTZERKIGILE...
MATE	AGIRRE	IDAZLE, ANTZERKIGILE...	IZASKUN	KEREMETA	ELDUINGO HERRIA
MARTIN	AGIRRE	KAZETARIA	IUR	KORTA	IDAZLE, ANTZERKIGILE...
RAMON	AGIRRE	AKTOREA	ENEKO	KORTADI	FUTBOLARIA
DAZLE	AGIRRE/SAROL	AKTORIA	MIKEL	LAIKKA	ERREALLEKO JOKALARIA
MANOL	AGIRRE/IE	ERREALLEKO JOKALARIA	JOSE	LANDA	IDAZLE, ANTZERKIGILE...
JOSE MARI	AGIRRE/IE	PORROTZ	BEÑAT	LARRAÑAGA	FUTBOLARIA
IUR	AGIRRE/LAULA	I UDUOLARIA	LEONIZ	LASA	AKIOLIA
XABIER	ALBERDI	FUTBOLARIA	ARNAIZ	LASARTE	BERTSOLARITZA
ANF	ALRISU	IDAZLE, ANTZERKIGILE...	MIKEL	LASKURAIN	AKTORIA
IRAKI	ALUZIKUR		IRAKI	LAZAROUASTILH	GIPIUZ, LITINKO LLILINDAKAR
ANGEL	ALKAIN	AKTOREA	XEBASTIAN	LIZASO	BERTSOLARITZA
AMAIA	AI KORTA	RRRTSOI ARITZA	MATE	I OITFACI	ITZILI TZAI FA
ALEX	ALTOLAGURRE	FUTBOLARIA	JOXEBA	LURRAMENDI	BERTSOLARITZA
ASIER	ALTUNA	ZINEGINTZA	OIER	LURRAMENDI	BERTSOLARITZA
MIRREN	AMURIZA	BERTSOLARITZA	ROURNE	MANTOIALAR	BERTSOLARITZA
XABIER	AMURIZA	BERTSOLARITZA	XABIER	MENDIGIGUREN	IDAZLE, ANTZERKIGILE...
JON	ANGOTEGI	ERREALLEKO JOKALARIA	AIOR	MENDILUZE	BERTSOLARITZA
IRAKI	APALATEGI	BERTSOLARITZA	ANTTON	MENDOZABAL	OKINAK
MIKEL	ARAMENDI	KAZETARIA	KEPA	MENDOZABAL	ELDUINGO HERRIA
INGO	ARANDIARRI	IDAZLE, ANIZLARKIGILL...	UDON	MOKALLS	I UDUOLARIA
MIKEL	ARANBURU	ERREALLEKO JOKALARIA	FRANZISCO	MORENO	
RURIN	ARANBURU	FUTBOLARIA	FRMIN	MUGURITZA	MUSIKARIA
JOSU	ARANBURU	I UDUOLARIA	ANITZA	MUÑAGORRI	ELDUINGO I LERRIA
MIREN	ARANBURU	FUTBOLARIA	JEXUK	MURUA	BERTSOLARITZA
DAKO	ARISTI	IDAZLE, ANTZERKIGILE...	KONTXU	ORIOZOLA	AKTORIA
JOSE LUIS	ARIZAGA	SORALUZKO ALKATEA	ANIER	OLAIZOLA	PELOTARIA
JOXE AUSTIN	ARRIETA	ITZULTZALEA	JOSU	OLAIZOLA	FUTBOLARIA
YOI ANDA	ARRIETA	IDAZLE, ANTZERKIGILE...	MATE	OLASACASTI	
AMETS	ARZALLUS	BERTSOLARITZA	GILLERMO	ORELLA	ESKULTOREA
JOXE MARI	AUZMENDI		JOSEBA	ORELLA	FUTBOLARIA
MIKEL	AZKONI	FUTBOLARIA	SABINO	ORMAZABAL	
EDURNE	AZUARA	IDAZLE, ANTZERKIGILE...	IKER	OSA	BERTSOLARITZA
AMURO	BARANDIARAN	ELDUINGO HERRIA	ANARA	OTAMENDI	ELDUINGO HERRIA
XABIER	BASTIDA	FUTBOLARIA	JOSE LUIS	OTAMENDI	IDAZLE, ANTZERKIGILE...
	BAZTARRIKA	MARGOLARIA	MIKEL	PAGADZARAI	AKTORIA
MIKEL	ULKARRA	ERREALLEKO JOKALARIA	KLPA	PLAÑAGARRIKANO	PELOTARIA
JON	CHUECA		PATZIKU	PERURENA	IDAZLE, ANTZERKIGILE...
SUSTRAI	COINA	RRRTSOI ARITZA	XARIFR	PIFTO	FRIFAI FIKO, JOKALARIA
MARIA PILAR	DLL POZO		AGIN	RLZOLA	ULRTSOLARITZA
IKER	DORRONSORO	TRIKI TA KE	XABIER	SANSEBASTIAN	MUSIKARIA
ASIN	DURAN		AMAIA	SANSINENFA	IDAZLE, ANTZERKIGILE...
RAQUEL	DURAN		JULEN	SANTESIEBAN	FUTBOLARIA
GILLERMO	ECHEBERRIA	IDAZLE, ANTZERKIGILE...	INGO	SARASOLA	ERREALLEKO JOKALARIA
ANDONI	ECHAÑA	BERTSOLARITZA	I ANDER	SARASOLA	FUTBOLARIA
RAFAEL	EGIGUREN		IKER	SARRIEGI	Erealeko jokalaria eta
LUIS	EGULS	ELDUINGO HERRIA	UNAI	SEGURDOLA	FUTBOLARIA
IRAKI	EUREN	TOSTULARIA	ASIER	SERRANO	IDAZLE ETA MUSIKARIA
LUCAS	EIZAGIRRE	PELOTA EPARLEA	JOSU	SOLARERRIETA	FUTBOLARIA
JUAN MIKEL	ELLXURU	IDAZLE, ANIZLARKIGILL...	MIKEL	SOLA	AKIOLIA
KRISTINA	ELIABURU	ELDUINGO HERRIA	JULIO	SOTO	BERTSOLARITZA
ONATZ	ELUSTONDO	FUTBOLARIA	AIOR	SUIFROGOMA	IDAZLE, ANTZERKIGILE...
LURDUS	ERASO	LAU	ALLX	ILLLO	IDAZLE, ANIZLARKIGILL...
TELMO	ESNAL	ZINEGINTZA	HODEI	TENA	FUTBOLARIA
JOSU	FRANCOIA	FRIFAI FIKO, JOKALARIA	MARTINI	TOIFDO	
ANTTON	ETXEBERRIA	IDAZLE, ANTZERKIGILE...	ANERE	TOLOSA	AKTOREA
JOSE MARIA	ETXEBERRIA	BERTSOLARITZA	GORKA	TOLOSA	BERTSOLARITZA
IUR	ETXEBERRIA	FUTBOLARIA	UNAI	TORRES	FUTBOLARIA
UNAI	ETXEBERRIA	FUTBOLARIA		TXAN MAGOA	
JOSE RAMON	FACHADO	IDAZLE, ANTZERKIGILE...		TILKU	IDAZLE, ANTZERKIGILE...
ANTTON	FERNANDEZ	BERTSOLARITZA		TIMBLETA	MUSIKARIA
	FONTAN	ARRAUNLARIA	KANDIDO	URANGA	IDAZLE, ANTZERKIGILE...
XABIER	GALARRETA	ITZULTZALEA	XABIER	URANGA	I UDUOLARIA
BEGORRA	GARMENDIA	BEIZAMAKO ZINEGOTZIA	ARANTZA	URBE	
JOSU	GARMENDIA	FUTBOLARIA	BAKARNE	URREAGA	BERTSOLARITZA
JOXURRA	GAZOLA	IDAZLE, ANIZLARKIGILL...	AIOR	URZUA	
BEÑAT	GAZTELUMENDI	BERTSOLARITZA	M KARMEN	URTEAGA	LAB
UNAI	GAZTEI LIMPIDI	RRRTSOI ARITZA	IURIA	YARZA	
MIKEL	GONZALEZ	ERREALLEKO JOKALARIA	AMINA	ZADALA	ELDUINGO HERRIA
AIOR	GOROSABEL	SUTALE GAR TALDEA	IRAKI	ZABALETA	IDAZLE, ANTZERKIGILE...
MARIA JOSFFA	GOROSTEGUI		ARTEMIO	ZARCO	IDAZLE, ANTZERKIGILE...
PEIO	GOROTXATEGI	MUSIKARIA	OIER	ZEARRA	PELOTARIA
MANU	GURRUTXAGA	ELDUINGO HERRIA	ARITZ	ZERAIN	BERTSOLARITZA
IKER	GURRUTXAGA	FUTBOLARIA	EÑAUT	ZURIKANAI	Frodeko jokalaria
GOTZON	HUEGUN	ESKULTOREA	PAUL	ZUBILLAGA	IDAZLE, ANTZERKIGILE...
ULGOÑA	IMAZ	LAU	MIKEL	ZUBIZARRITA	ULRTSOLARITZA
JESUS	ILURRITA		AIOR	ZULAIKA	FUTBOLARIA
DONETZ	IRADI		DAVID	ZURUTZA	ERREALLEKO JOKALARIA
JUAN MIKEL	IRIGOYEN	IDAZLE, ANIZLARKIGILL...			
ANGEL MARI	IRURETAGOiena	BERTSOLARITZA			
LAINDA	ITURRI DE	FUTBOLARIA			
AIOR	ITURRALDE	I UDUOLARIA			

# “Igeldok udalerrri izate hori lortua dauka”

Juan Landa Mendibe, hau da, Igeldoren desanexio prozesua daraman abokatuari egin dio elkarrizketa Orri Informatiboak. Landa, Ekain abokatu taldeko partaidea da eta Zuzenbide Administratiboan aditua (hirigintza; udal erregimena, ogasuna, ingurumena, herri-langilegoa...). Igeldoren egoeraz eta etorkizunaz bere ikuspuntuaren berri eman digu.

## Noiz eta nola hasi zinen Igeldoko prozesuarekin?

2010eko urtarrilean hartu nuen zeregina Igeldo berriro ere Udalerrri bihurtzeko ahaleginetan.

## Aurretik antzeko gaiak landu al dituzu?

Bai. Beti izan dut oso gustukoa udal mundua (Udal Idazkari titulua ere badaukat) eta honen barnean, batez ere, udal herri txikien bizimodua, antolakuntza eta, nola ez, birjaiotzea. Zuzenbide lanetan 1981ean hasi nintzen eta ordutik, Iurretako birjaiotzean eta baita ere Zierbenako sor berritan parte hartu nuen. Era berean, duela lauzpabost urte, Bizkaiko Bolibar herriaren birsortzea eramateko aukera paregabea izan nuen.

## Diputazioak 15 urte eta gero erantzuna eman digu, ezezkoa. Zer iruditu zaizu erantzun hau eta Diputazioak izan duen jokaera azken hilabete hauetan?

Erantzuna ez zait inolaz ere egokia iruditu. Alde batetik, Itsas Aurre desanexiorako elkarteak 1995eko martxoaren 22an irekitako espedienteak, bai Donostiako Udalaren eta baita Foru Aldundiaren aldetik ere, ezezko jarrera izan duelako hasiera hasieratik, eduki eta arrazoietan sartu gabe gainera. Itsas Aurrek bi alditan epaitegitan irabazi ondoren ere, 1999ko azaroaren 23an Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak espedientea gelditzea erabaki zuen, Madrileko Epaitegi Gorenak Udaletxeak jarritako helegitea erabaki bitartean, horretarako inolako arrazoi edo justifikazio legalik gabe; helegiteak ez baitu suspentsiorik ekartzen. Urteak pasa ondoren, eta Madrileko Epaitegi Gorenak Igeldoren alde erabaki ondoren, Itsas Aurrek 2005ko urriaren 14an, espedientearen birbizipen eta jarraipena eskatu behar izan zuen Foru Aldundiak ez baitzuen bere kabuz egin. Eta, azkenean, ia bost urte beranduago (2010eko martxoaren 16an hain zuzen) etorri da Foru Aldundiaren ezezko borobila.

Nire uste apalean, ezezko hau aurretik hartuta zegoen (hasieratik). Donostiako Udalaren eta Foru Aldundiaren

arteko harremanetan finkatu behar da – euren arteko lagunarteko lankidetzeta politikoan- baina ez dauka legezko arrazoirik. Azken bost urte hauetan, Foru Aldundiak Udalarri eman zion txostena aurkezteko epea, eta ez Igeldori. Horrez gain, Foru Ogasun Sailari ere eskatu zion bere iritzia. Itsas Aurrek, gu geuk, azken egunetan Foru Aldunditik ateratako txosten hauei buruzko iritzirik ezin izan dugu eman. Eta gainera, Udalak berriz emandako ezezko txostena duela hamar urte emandakoaren antzekoa da eta teknikari berberak emandakoa. Foru Ogasunarena berriz, ezin daiteke inolaz ere kontraktotzat hartu Igeldo Udalerrri bihurtzeko diru hornikuntza positiboa ematen baitu eta, horrez gain, Donostiako Udalaren sarrera aurrekontuetan, ez luke eragin signifikatiborik izango (%0,5 ekoa izango bailitzateke eragin hau).

## Erantzunaren aurrean, epaitegira jo dugu berriz ere. Zenbat luza daiteke?

Zoritxarrez, epaitegiek berriro erabaki arte, bai Bilbon eta baita Madrilen ere, honek bost bat urte beharko ditu. Dena den, Foru Aldundiak bere aurkako jarrera hori aldatuko balu ezberdina litzateke. Eta lor daitekeelakoan nago. Horretarako, Itsas Aurrek eta bere inguruko auzokide, lagun eta adiskideek lanean eta ekinean jarraitu beharko lukete. Izan ere, espedienteak negoziatzeko bidea ere ematen du, adibidez, Udalerrri berriaren mugaketa finkatzeko edota egungo zerbitzu publikoak, behin behineko denboraldi batean behintzat, nola kudeatu daitezkeen adosteko.

## Zure iritziz, nola ikusten duzu egoera?

### Herri izateko aukerarik ba al dugu?

Zinez, neure ustetan, Igeldoko auzoak lortua dauka Udalerrri izate hori eta hau negoziatzearen ezezkoa da, baina praktikan ez da hala gertatzen. Jarritako ñabardurak eta xehetasunak adostu eta idatzirik jasota geratu beharko dira, beste desanexio jardunetan eman izan den bezala. ■

## **KIXMI ASIALDI TALDEAK 10 URTE!!! MILA ESKER DENOI!!!**

Otsailaren 28an Kixmi aisialdi taldearen 10. urteurren festa ospatu zen eta antolatzailerik azaldu dute, izugarritzko giroa sortu zela plazan eta ondorioz festa primeran aterata zela. Herritarren parte hartzea handia izan zen eta horregatik eskerak eman nahi dituzte.

## **2010eko IRTEERA LEKAROZera**

Kixmik antolatutako aurtengo urteko irteerak izugarritzko erantzuna izan duela jakinarazi dute. Eguraldiak lagunduta 46 lagun joan dira Igeldotik Lekaroz aldera asteburu pasa eta oso ondo pasa dute. Azaldu dute pena izan dela, bai autobusean eta baita albergean tokia mugatua zegoela eta ondorioz, haur batzuei ezin zutela etorri esan behar izan dietela. Hurrengo urtean, denontzat tokia izatea espero dute.

## **JARDUNALDI INDEPENDENTISTAK**

Martxoaren 6an Jardunaldi Independentistak burutu ziren Itsas Aurre elkartean Igeldoko gazte independentistek antolatuta. Jardunaldi horiek apirilaren 2an, Durangon ospatu zen Gazte Herria jaialdi erraldoiari begira egin zituzten, herriko gazte independentistak biltzeko eta denen artean independentzia hitz egiteko asmoarekin. Eta azaldu duteenez, lortu zuten. Egun hori antolatzen lagundu zutenei eta egunean bertan bertaratu zirenei eskerrak ematen dizkiete.

Jardunaldi hauetan lehenik, Euskal Herriko bilakaera historikoari buruzko power point bat ikusteko aukera izan zuten eta ondoren, horrekin lotuak zeuden gai batzuen inguruan eztabaidatu zuten: Euskal Herriaren zatiketa, Kultura eta hizkuntza, Globalizazioa...

Ondoren, Igeldo eta Euskal Herriaren kasua lotzen zituen hitzaldi bat entzun zuten (*Eskerrik asko Juankar*) eta horren inguruan eztabaidatu ostean, eman zioten amaiera egunari.

Horrez gain, maiatzak 29an Bruselan, euskal gazteriarik elkartasuna adierazteko delegazio internazionalistak deitu duen manifestazioan parte hartzeko eta independentziaren alde lanean jarraitzeko deia luzatu dute.



## **MODU ZORAGARRIA UDABERRIA HASTEKO**

Modu zoragarrian hasi dugu udaberria Igeldon. Apirilaren 17an Lezkarri Abesbatzak antolatu zuen kontzertua benetan paregabea izan zen. Igeldokoek eman zioten hasiera emanaldiari lau kanturekin. Gero, Doneztebetik etorritako Mendia Abesbatzak jarraitu zuen, bederatzi kanta eskainiz. Abesbatza honek gureak baino ahots gehiago ditu (36 pertsona aritu ziren) eta urte gehiago daramazkitez lanean.

Bukaera hunkigarria izan zen, bi abesbatzek batera (53 ahots!!) abestu baitzituzten "Kantuz" eta "Erribera" kanta ezagunak. Malkoren bat ere ikusi ahal izan zen.

Orain dela urte bete, Lezkarrikoak joan ziren Donezteben eta oraingoan bisita bueltatzea tokatzen zen. Jakin badakigu, Mendi abesbatzakoak kontentu asko itzuli zirela Nafarroa aldera Kalongenean bapo jan ondoren.

Mila esker han bildu ziren guztien partetik eta... segi horrela!!



*Orrri Informatiboa osatzen  
askotan lagundu digun!  
Hire iritzi eta ideiak zabalduz  
Igeldo, Euskal Herria, mundua,  
eta nola ez,  
pertsonek arteko harremanak  
beste modu batera bizitzen  
irakatsi digun!  
Eta orain gure lana dun  
hik irakatsitakoarekin  
aurrera jarraitzea!*

**ESKERRIK ASKO LIBE.**

*Igeldoko Orrri Informatiboa*

# UDABERRIKO JAIA 2010

## Maiatzak 14, ostirala:

**22:00etan** antzerkia.  
*Ogiyik karri etzun semia.*

## Maiatzak 15, larunbata San Isidro, baserritarren eguna:

**13:00etan** Azkonobieta bere  
aberearekin 116 plazako errekorra  
hausteko prest.

**14:00etan** bazkaria Itsas Aurren.

***Txartelak salgai Txistu, Mendizorrotz eta Txapela tabernetan  
25 euroan.***

Agin Rezola eta Xabier Legarreta bertsolariak.  
Alkorta anai-arreba trikitalariak.

**20:00etan** aizkora apustua Olasagasti eta Etxebeste Azurmendi eta  
Txapartegiren aurka.

**22:00etan** erromeria.



## **OHARRA:**

*Larunbatean taberna  
jarriko da eta afalorduan  
salgai izango dira  
ogitartekoak.*



**Igeldoko  
Herri  
Kontseilua**

Laguntzailea:

